


# euskararen berripapera



189

## Gaztezulo aldizkariak eta "Labe pirolitikoak" iragarkiak jaso dituzte Ukan Berrikuntza eta Ukan Publizitate sariak

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak otsailaren 6an, Donostian, banatu zituen Ukan Berrikuntza eta Ukan Publizitate sariak. Gaztezulo aldizkariako Alberto Irazu zuzendariak eta Fernando Gómez-Acedo Fagor Electrodomésticos enpresako Kontseilu Errektoreko presidentek jaso zituzten Ukan Berrikuntza saria eta Ukan Publizitate saria, hurrenez hurren, Miren Azkarate sailburuaren eta Patxi Baztarrika HPSko sailburuordearen eskutik. Ukan Berrikuntza saria 12.000 euroz dago hornituta eta Ukan Publizitate saria 24.000 euroz.**



Ezker-eskuin: Patxi Baztarrika, Alberto Irazu, Fernando Gómez-Acedo, Miren Azkarate eta José Antonio Rodríguez.

### UKAN Berrikuntza saria

Ukan Berrikuntza sariak helburu bakarra du: kontsumitzaileen premiak eta beharrak ase eta,aldi berean, ekonomikoki bideragarria egite aldera berariazko ahalegina egin duen euskarazko hedabidea saritu eta dagokion jendaurreko aitortpena egitea. *Gaztezulo* aldizkaria Donostiako Komunikabideak enpresak argitaratzen du eta euskarri digitala ere badauka, [www.gaztezulo.com](http://www.gaztezulo.com) web gunea, hain zuzen ere. Bi euskarriak izan dira sarituak.

1997-1998 urteetan *Irutxulo* Donostiako Euskaldunon aldizkariaren barruan *Gaztezulo* izeneko bi orrialdeko atal berezitua argitaratu zuten. 1999an *Gaztezulo* Donostiako Gazteen hilabetekaria sortu zuten eta 2000ko urrira arte hilabetekaria *Irutxuloren* harpidedunen artean banatu zen. Harrez gero Donostian banatzen zen hilabetekaria Euskal Herri osora hedatu zen. 2007ko apirilera arte bide horri eutsi zion. Iazko apiriletik aurrera diseinu berria du eta izena ere bai, *Gaztezulo*, alegia. Gazteen-

tzako aldizkaria da *Gaztezulo* eta gazteengana hurbiltzen saiatu da etengabe. Komunikazio-planek aparteko eragina izan dute eta nabarmentzekoa da baita ere, *Gaztezulo* Sound System izeneko karpa edo agertokia.

### UKAN Publizitate saria

Sari horren helburua hau da: produktu edo zerbitzu bat irrati, telebista, egunkari edo aldizkari bidez zabaltzeko asmoz ekoiztutako euskarazko publizitate-iragarki onena aintzat hartu eta saritzea. Hori egite aldera, iragarkiaren hizkuntza-erabilera baino ez da gogoan hartu, hau da, egokitasuna, zuzentasuna eta jatortasuna. "Labe pirolitikoak" iragarkiak euskara sorreratik bertatik aintzakotzat hartu izana eta pertsonaia nagusia euskalduna izatea baloratu da.

Miren Azkarate Kultura sailburuak Eusko Jaurlaritzaren hizkuntza politikaren ardatz behinenetariko bat euskararen erabilera eta garaien bilakabidea ahalik eta erarik estuenean uztartzea dela gogorarazi zuen ekitaldia amaitzeko. Hori lortzeko lankidetzaren eta elkarren jardueraren eremuak aintzat hartu beharra azpimarratu zituen eta zera adierazi zuen: «Ildo horretatik, gaur banatu ditugun sariok garbi erakusten digute errespetuzko lankidetzaren horren bidea, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak irizpide garbi baten arabera jokatu baitu Ukan Berrikuntza eta Publizitate sariok deitu eta ematerakoan: hizkuntza politika integratzaile eta orekatu baten ikuspegitik euskararentzat onuragarriak gertatzen diren ekimenak eta jarduerak saritzean, euskal gizartearen euskararekiko konpromiso praktikoa sustatzen ari gara»●

# 54.474.005 eurokoa da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2008ko aurrekontua

**Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren (HPS) 2008ko aurrekontua 2007koa baino % 6,5 handiagoa da eta legegaldiko lehen aurrekontua baino % 44,04 handiagoa. HABEren aurrekontua berriz, 42.900.000 eurokoa da, iazkoa baino % 6,19 handiagoa eta 2005ekoa baino % 50,52 handiagoa. Aurrekontu horien % 82 diru-laguntzetara bideratuko da.**


Biak kontuan hartuz gero, hau da, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontua (54.474.005 euro) eta HABEren aurrekontua (42.900.000), guztira 69.334.905 euroko aurrekontua kudeatuko du HPSk.

Diru kopuru horren helburua, azken finean, euskararen erabilera bultzatzea da eta euskara erabiltzeko aukerak sortu eta indartzea. Patxi Baztarrika sailburuordeak adierazi du aurrekontuak eta diru-laguntzak bitarteko garrantzitsuak badira ere, soilik tresnak direla. Helburu nagusia ezaguna dela gehitu du: «Eguneroko bizitzan eta jardunean euskararen erabilera bultzatzea, sendotzea eta handitzea. Euskara eskoletako lau hornen artean gorde ordez, kaleko bizitzara, lan-mundura, internetera, aisialdira, hedabideetara, lagun artera, familiako harremanetara zabaltzea».

Baztarrikak nabarmendu du Eusko Legebiltzarrak onartutako aurrekontua ia-ia, HPSk berak aurkeztu zuena dela. Eta «espresuki eskertu nahi dugu aurrekontu honi Legebiltzarrean gobernuko hiru alderdiek (EAJ, EA eta EB) ez ezik PSE-EEK ere eman dion babesia eta Aralarren abstentzioa».

Aurrekontuak aurrekontu, diruak diru, Baztarrikak berretsi du euskara erabiltzea dela euskarak behar duen aurrekonturik handiena eta horretan gutariko bakoitzak daukala giltza nagusia.

## HPS ETA HABEAREN AURREKONTUEN BILAKAERA




## 2008ko laguntza-lerroak jada kalean dira

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aurrekontua 54.474.005 eurokoa da eta horietatik % 82 diru-laguntzetara bideratuko da, zuzenean euskararen erabilera sustatzeko proiektuak bultzatzeko. Baztarrika sailburuordeak azpimarratu duenez, lehenengo aldia da hizkuntza politikako diru-laguntza deialdia urtearen hasieran argitaratzen dela. Zera gehitu du: «Legealdi honen hasieran hartu genuen konpromiso hau, eta bete dugu. Urtearen lehen lauhilekoaren barruan ebatzita eta jakinarazita egongo dira urteko diru-laguntza guztiak».

## Honatx laguntza-lerroak:

- **Gizarte-bizitzan** euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko egitasmoak bultzatu. 1.300.000 euro.
- **Euskarak hedabideetan** presentzia gero eta bikainagoa izan dezan bultzada eman. 5.776.000 euro.
- **Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia** euskarazko baliabideak eta aplikazio berriak garatzeko programak bultzatu. 1.700.000 euro.
- **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari** bultzada berriua eman. 1.700.000 euro.
- **Arlo sozio-ekonomikoan, lan-munduan**, 2006an abian jarritako *LanHitz* programa sendotu eta hedatu. 2.690.000 euro.

## EUSKALTEGIETARAKO DIRU-LAGUNTZEN BILAKAERA



Aurreko horiek abian diren 20 lan-ildo nagusietako bosti jarraipena ematera datoz. Honatx gainontzeko lan-ildoak:

- Helduen euskalduntze-alfabetatzeari dagokionez, euskaltegi publikoen sarea hobetzeko neurriak hartuko dira. Ikasleentzako diru-laguntza indibidualak sendotuko dira.
- *Elebide* hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzua garatu eta sendotu.
- Euskal Herriko IV. Inkesta Soziolinguistikoa plazaratu.
- Euskararen Erakunde Publikoarekin iaz sinatutako hitzarmena sendotu.
- Euskara munduan zabaltzeko asmoz, unibertsitateetako *Lektore programa* indartu eta hedatu. Nazioarteko hizkuntzen azoka garrantzitsuenetan parte hartu. Etxepare Euskal Institutua abian jarri.



Jone Agirregoikoa


## Euskara munduan web gunea

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskara Munduan web gunea jarriko du martxan. Web horren helburua euskara zein euskal kulturaren inguruan egiten diren mota guztietako jardueren zabalkundea egitea da.

Ardatz nagusia *Euskara eta Euskal Kulturako Lektore Programak* osatuko du. Izan ere, hori da Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza azken urteotan sustatzen ari den programetako bat. Horretaz gain, beste bi ardatz izango ditu web guneak:

- Euskal Etxeetan antolatzen diren ekitaldi eta ikastaroak.
- Euskal Herritik kanpoko bestelako euskara ikasketak.

Jone Agirregoikoa idatzitako artikulu osoa eta *Hizkunea* Soziolinguistikako Agerkariko aurreko artikuluak eta, argitalpen eta azterlanei buruzko berriak [www.euskadi.net/hizkunea](http://www.euskadi.net/hizkunea) web gunean irakur ditzakezue.



**Emotions and Multilingualis**  
Pavlenko, A.



**El règim jurídic de les llengües a l'Administració de justícia**  
Pla i Boix, Anna M.



**Encyclopedia of the world's endangered languages**  
Moseley, C.

### 2. orrialdetik dator

- Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatze IV. Plana onartu eta abiarazi.
- Euskararen erabilerearen normalkuntza sozialari buruzko gogoeta antolatu EABren barruan sortutako "XXI. mende hasierako hizkuntza politikaren oinarriak" batzordearen bidez.
- Euskara etorkinen eskura jartzeko egitasmoak sendotu.
- Ukan elkarbizitzarako birus osasungarriaren mezuari jarraipena eman.
- ONCEekin lankidetzan jarraitu euskal literaturako obrak braille sistemara eta entzutezko formatura egokitzeko.
- *Mintzalaguna* egitasmoa sendotu.
- Euskalgintzako hainbat erakunde eta elkar-terekin ohiko lankidetzak jarraitu.
- Terminologia arloko lan berezietuekin eta hiztegi gintza lanekin jarraitu.
- Kontsumitzaileen hizkuntza-eskubideak betetzeko arauak eman.
- Euskararen gaitasun agirien baliokidetzeta-sistema onartu ●

## IZENDAPEN BERRIAK



José Antonio Rodríguez



Joseba Lozano Santos

Berriki, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren baitan aldatetak izan dira. Batetik Miren Dobaran Urrutia andreak, Euskara Sustatzeko zuzendariak, bere ardurak utzi ditu eta BFAra joan da. Bere tokia **José Antonio Rodríguez Ranz** jaunak hartu du. Zuzendari berria Andoaianen jaiotakoa da (1960). Historian doktorea. Administrazio esparruan ibilbide luzekoa: Andoaingo Udaleko artxibozaina (1979-1993); Deustuko Unibertsitatean (Donostia) Giza zientzietako departamendu-buru eta Komunikazio zuzendaria (1993-2003), GFAko Diputatu Nagusiaren kabinete-buru (2003-2007) eta HPSko aholkulari (2007-2008). Bestetik, Jokin Azkue Arrastoa jaunak, orain arte Herri Administrazioetan Euskara Normalizatze zuzendari lanetan ibili denak, Tolosako alkateordetzari heldu dio. Bere ordeztan **Joseba Lozano Santos** jauna izendatua izan da. Joseba Lozanok (Gasteiz, 1962) Euskal Filologia eta Espainiako Filologia ikasi ditu. Irakasle, itzultzaile eta HAEE-IVAPeko Administrazio-hizkeraren arduradun aritu ondoren, Normalkuntza Plangintzak Jarraitzeko arduraduna izan da HPSn. Idazle Eskolako eta Hiznet-eko irakasle, hainbat liburu eta artikulu idatzi ditu ●



## Kirola, aisialdia eta euskara batera gozatzeko aukera izan dute 400 gaztetxok

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kirola, aisialdia eta euskara batera gozatzeko helburu duen *Kirol-campusak euskaraz* egitasmoa abiatu zuen 2006an. Lehen edizioak lortutako arrakasta ikusita, 2007ko edizioko hiru campusak bi txandatan egin dira, abenduan eta urtarilean. Hala, 8 eta 11 urte bitarteko 400 gaztetxo inguruk punta-puntako kirol taldeekin hiru kirolean aritzeko aukera izan dute: txirrindularitzan Euskaltel-Euskadirekin Derion, saskibaloian Tau-Baskoniarekin Gasteizen eta eskubaloian Bidasoarekin Irunen. Egitasmo honekin, gazteen artean kirolaren bitartez euskaraz gozatzeko giroa sortu nahi du HPSk, «eskolaz kanpo ere, aisialdian, euren arteko harremanetan, egoera informaletan euskara normaltasunez erabil dezaten lortzeko» ●

## Euskara Mintzagai, euskararen zabalkunderako HPSren lan ildo berria



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren kezka eta jardunbide nagusienetako bat euskararen inguruko sentiberatzea izanik, irakasleei eta gazteei zuzendutako *Euskara Mintzagai* izeneko euskararen zabalkunderako lan ildo berria jarri du abian. Hala, euskaraz denboran zehar bizi izan duen bilakaeraren berri emango duen liburu-bilduma berria argitaratzeari ekin dio, Labayru Ikastegiaren eta Udako Euskal Unibertsitatearen partaidetzarekin. Irakasle eta gazteez gain bestelako hartzaileak ere izango dira, hala nola, euskaraz ikasten ari direnak eta euskararen eta Euskal Herriaren inguruko gaiez interesa dutenak.

*Euskara Mintzagai* bilduman argitaratutako bi liburuxkak hauek dira: *Euskararen geografia historikoa* (Labayru Ikastegia) eta *Ahozko hitzetatik idatzietara: ikasi eta jardun* (Udako Euskal Unibertsitatea).

Bestalde, [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net) web gunean ere sail berezia eskaini zaio ekimen berriari. Batetik, *Euskara Mintzagai bilduma* izeneko atalean, paperean argitaratutako liburuxken bertsio elektronikoak bilduko dira. Bestetik, euskararen inguruan fede txarrez eta onez esandakoak eta idatzitakoak bilduko dira *Euskara Mintzagai, usteak eta iritziak* sailean ●

## 2.000 ikasle inguru ari dira euskara ikasten mundu osoko Euskal Etxeetan



Argentinan eta uruguaiar irakasle taldea.

Miren Azkarate Kultura sailburuak *Euskara Munduan* egitasmoaren azken berriak eman eta 2008-2011 urtealdirako aurreikuspenak aurkeztu zituen urtarilean. Programa horren barruan, argentinan eta uruguaiar irakasle talde batek Euskal Herrira egindako bisitaldia baliatu zuen Eusko Jaurlaritzako horretarako. Irakasle talde horrek ikastaldi trinkoa egingo du Lazkaoko barmetegian.

*Euskara Munduan* programaren helburu nagusia munduko Euskal Etxeetan euskarazko eskolak ematea eta euskal hiztunak sortzea da. Horretarako hiru lan-lerro nagusi lantzen dira: irakasleen trebakuntza; Euskal Etxeak euskarazko eskolak bideratzeko materialez hornitzea; eta euskara-ikastaroak diruz laguntzea.

Egun 2.000 ikasle inguru ari dira mundu osoko Euskal Etxeetan euskara ikasten. HPSk kudeatzen duen *Lektore programaren* bitartez berriz, 2007-2008 ikasturtean 12 herrialdeko 24 unibertsitatetan ari dira euskara eta euskal kultura ematen. 700 ikasle inguru dituzte guztira.

Aurrera begira, orain arteko bideari jarraipena emateko eta Argentinako esperientzia beste esparru batzuetara hedatzeko helburua du Eusko Jaurlaritzak ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

*Euskararen Berripapera* zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16 • [berripapera@ej-gv.es](mailto:berripapera@ej-gv.es)